

AZPEITIA

GUKA



DANBOR
FESTA BADATOR

ASIER ITULAIN





ZERBITZU PERTSONALIZATUA ETA
INTEGRALA EMATEA DA GURE HELBURUA
EMAN EGURRE TANBORRAI!



Harzulia hiribidea, 51 - AZPEITIA
erniosukaldeak@erniosukaldeak.com
943-81 57 05 - 943-15 00 63



Iritzia
Aitziber Arzallus

Hementxe direla!

Ez zaizkit gustatzen etiketak, nigatik baltz denak kenduko nituzke. Baina jakitun naiz egungo joera kontrakoa dela, modan dagoela etiketa berriak sortzea eta jartzea, eta gaurkoan, prest nago ahalegina egiteko. Sailkatzeko balio dute etiketek, talde bateko edo besteko kide izendatzeko, eta ia edozeri jar dakizkioke. Azpeitiarrak, adibidez, modu askotara sailka daitezke. Aukera bat izan daiteke azpeitiartasun sentimenduaren arabera egitea. Azpeitiar, *azpeitano* ala Azpeitiko bizilagun sentitzen zara? Galdera horri nola erantzuten diozun, etiketa bat edo bestea jarriko diozu zeure buruari. Beste modu bat izan daiteke zezenzaleak eta zezenak gustuko ez dituztenak bereiztea; edo hobeto esanda, zezenaren bueltako ekitaldiak gustuko dituztenak eta ez dituztenak -zezenak ez baitu kulparik-; horra hor beste bi etiketa. Eta herriko festa mai-teenen arabera sailkapena egitea ere badago. Zein dituzu gustukoago, sansebastianak edo karnabalak? Bai, badakit festa gehiago ere baditugula herrian, baina besteak gutxietsi gabe, adierazgarrienak horiek iruditzen zaizkit.

Ni azpeitiarra sentitzen naiz, ez zaizkit zezenaren bueltako ekitaldiak gustatzen, baina karnabalak bai, asko, sansebastianak baino gehiago. Badakit esku artean duzuen hau sansebastianei buruzko gehigarria dela, baina gezurretan ere ezingo naiz ba hasi. Azpeitiar ia guztiak bezala, danborradan noiz edo noiz parte hartutakoa naiz, umetan pare bat alditan eta helduenean beste bitan. Ez dut oroitzapen txarrik, baina gaur ez nau tentatzen danborradak, eta interes gutxi sortzen didate sansebastianek. Ez naiz gai parte hartzen duten taldeak zerrendatzeko, ezta bakoitzak zer-nolako jantziak dituen esateko ere, ez dakizkit kantuen izenak, ez naiz minduko talderen batek trakets samar jotzen badu, eta ez dut bururik nekatuko lau talde berri sortuko balira haiek non kokatu pentsatzen. Agian, nire lanagatik, ezagutza handiagoa izan beharko nuke, baina zertarako, sekula ez baditut inguruan ditudan adituak gaindituko? Batek sansebastianei buruz egin zuen gradu amaierako lana, beste batek *Goizeko izarra* jarrita lotaritzen du umea, bes-

te bat urtearekin batera hasi zen sansebastianetako doinuak ahapetik kantatzen eta bolumena igoz doa egunetik egunera... Sansebastianzalearen etiketa ondo irabazitako jendea daukat inguruan, ez daukat gehiagoren beharrik. Hala ere, aitortu behar dizuet azken urteotan xarma puntutxo bat topatu diedala sansebastianei, eta gezurra badirudi ere, lanaren kontura izan dela hori; Guka Telebisitarako egiten dugun zuzeneko saioaren kontura, hain zuzen. Plazan ibiltzea tokatu izan zait, danbor jotzaile artean, saltsan, zuzenkorako elkarriketak egiten, eta ondo pasatu izan dut, bai lanean, bai aurretik egiten dugun afarian, baita ondorenean ere. Aurten ere ahaleginduko gara saio txukun bat egiten, eta lanean ariko garen arren, ondo pasatzen, hori ere posible baita. Eta beste horrenbeste opa dizuet zuei denoi ere. Sansebastianzaleok, gozatu festaz ahal duzuen guztia; asko jo eta, batez ere, ondo jo (danborra). Karnabalzaleok, hasi elegante jantziak eta mozorroak presatzen, sansebastianak izateak karnabalak badatozela esan nahi baitu, hementxe direla!




HORTZEDER
HORTZ KLINIKA

Eliz kalea 23 | 943 816 668

Aho osasunean:
pasioa, emozioa, sorkuntza



Ondo pasau
sansebastianak!

A man with short grey hair, wearing a maroon long-sleeved sweatshirt with a logo and black pants, stands on concrete steps against a dark brick wall. He is smiling and looking towards the camera. The steps are made of light-colored concrete and lead up to the right. The wall behind him is made of dark, textured bricks.

«Aurtengo festez denok gozatu ahal izango dugula espero dut»

Mikel Odriozola Festa batzordeburua

Atzera kontaktako azken astean sartuta, xehetasun guztiak «kontrolpean» dituela esan duen arren, urduri izango dela onartzen du Mikel Odriozola zinegotziak, «helduen danborrada hasi arte». Aurtengoan izango diren berrikuntzez, batzorde berriaz eta bestelakoez hitz egin du.

Danborrada hazten ari da, eta aurten 31. taldea gehitu zaio helduen desfileari. Azpeitiarrrek festan parte hartu nahi duten seinale. Herriko jairik parte hartzaileenak dira sansebastianak. Pozgarria da hori, ezta?

Dударик gabe. Azpeitiko helduen danborrada indar handia hartzen ari da azken urteetan. Aurtengo danborradara beste talde bat gehitu da, eta 31 izango dira, guztira. 1.550 lagun baino gehiagok parte hartuko dute aurten San Sebastian bezperako danborradan, eta ongietorriak izango dira aurretantzean animatzen diren talde berriak ere.

Herritarrek badute, ordea, kezka nagusi bat: plazan tokirik izango al den. Arazorik ez dela egongo ziurtatzerik bai?

Danborradako beteranoek diotenez, hogeitasei talde zirenean ere plazan ez zen tokirik egoten. Eta, orain, 31 taldera iritsi gara. Ukatzerik ez dago denok sartzeko lekuz larri ibiliko garela. Talde bat gehiago izanda, kabitu kabitzen gara, baina ez da gauza bera plazan zer tokitan jotzea tokatzen zaizun. Aurten, atzeko lau taldeetako zenbait danbor jotzailek Azoka Plaza barruan egon beharko dute, eta han atzean egon edo aurreneko ilaran egon, ez da berdinez bitzitzen festa.

Gero eta danbor jotzaile gehiago egoteak plazan ikusleentzat leku gutxiago izatea ere ekartzen du. Gai hau danborradako bileran aipatu eta eztabaidatu izan da. Momen-

tuz, taldeek Azpeitiko danborrada orain den bezala nahi dute; badakite hasieran edo plazan denbora luzez egon beharko dutela, edota beste urte batean leku ez hain ona tokatuko zaiela.



«Ukatzerik ez dago lekuz larri ibiliko garela plazan denok sartzeko»

«Pozez eta ilusioz egoten dira haurrak danborradan irteteko»

Sansebastianak festa herrikoia izanik, parte hartzea ezin da mugatu. Baina talde gehiagok izena eman ez gero, irtenbiderik aurreikusitako al du udalak?

Egoera hau planteatu da danborrada batzordean, baita danbor taldeekin egiten diren bileretan ere. Bilera horietan jasotakoaren arabera, danbor taldeek danborrada gaur egun den bezala nahi dute. Aurreko urteetan egin izan dira moldekak, baina horiek ez ziren aurrera ateratu.

Aurten ikusiko dugu eginda-ko aldaketarekin nola irteten den danborrada, eta sansebastianen ondoren egiten den ba-

lorazio bileran aztertuko dugu zer esaten duen jendeak. Birtartean, batzordeak lanean jarraituko du, egoerak aztertzen eta aldaketak eta hobekuntzak planteatzen.

Festaren herrikoitasunaren isla da batzorde berria sortu izana. Zeintzuk dira haren eginkizun nagusiak? Nola egingo du lan batzorde horrek?

Batzordea urtean bizpahiru aldiz elkartzeko da: azaroko ohiko bileraren aurretik, danborradaren ondoren eta maiatz aldera.

Bertan landuko dira danborradaren inguruko gaiak, eta hobekuntzak edo aldaketak planteatu behar badira, ondo hausnartuta eta landuta eramango dituzte talde guztiek parte hartzen duten bileretara, ondoren han eztabaidatu eta erabakiak har ditzaten.

Finkoa izango da batzordea, edo kideak aldatzen joango dira?

Lehendabiziko batzordea boluntarioekin osatu zen. Talde horretako kideek bi urte egin dituzte, eta aurten, dagoeneko, San Sebastian jaietan parte hartzen duten danbor taldeetako ordezkariak hasi dira batzordera sartzen. Danbor talde bakoitzeko ordezkariak bi urte egingo dituzte batzordean, eta horien txanda igarota, beste hiru taldeetako ordezkariak gehituko dira. Batzordea sei taldeetako ordezkariak osatuta egongo da. Batzordeak eztabaidatu edo landu ditu zenbait puntu, eta horiek danbor tal-

deekin egin zen azaroko bileran azaldu zituen, bakoitzak bere taldean adierazi eta hausnartzen joateko.

Aurtengo aldaketa nagusia taldeen ordenan nabaritutako da: bosnaka aldatuko dira. Zer lortu nahi izan da horrekin?

Hori izan da danborradako batzordeak landu eta proposatu duen aldaketetako bat. Ikusten zen, taldeen ordena banaka mugitzean, danborrada hasteko garaian edota plazan denbora luzez egon behar izaten zutela partaideek zain. Gauza bera gertatzen zen parrokiako geldialdian. Aldaketa dinamikoagoa izatea lortuko da orain.

Aldiz, banderaren jaitsieran sei taldetik zortzi izatera aldatzea proposatu zen arren, ez da onartu. Baztertu egingo da ideia, edo aurrerago berriro helduko zaio gaiari?

Batzordeak aldaketa hori proposatu zuen, bandera jaitsiera erakargarriagoa izan zedin, baina bozketa eginda, ez zuen aurrera egin proposamenak, boto bategatik. Ondorengo batzordeari iruditzen bazaio proposamen egokia dela, gaia landuta, berriro egin daiteke bozketa.

Umeen egun handia, berriz, San Sebastian eguna izaten da. Herria koloreztatzeaz gain, ederra da irribarre horiek ikustea, ezta?

Pozez eta ilusioz egoten dira herriko haurrak danborradan irteteko, baita haien familiak ere. Arropen probaketatik hasi, entsegu egunak, danborrada... momentu berezi gisa

bizi dute dena. Uste dut denok dugula gure txikitako oroitzen artean danborradan ateratu ginen eguna. Horrekin batera, nabarmendu nahiko nuke haurren danborradan ateratzen diren taldeen atzean dagoen boluntario lana.

Aurtengo karrozak Azpeitiko antzinako lanbideak izango ditu erakusgai. Zer moduz joan da lehiaketaren prozesua?

Aurten lau proiektu aurkeztu dituzte lehiaketara, eta hori oso positiboa da; ikusi da gaia erakargarria izan dela. Ez da erreza izan aukeraketa, denek lan onak aurkeztu dituztelako, baina bat aukeratu behar zen, eta Aitor Expositorena izan da aurten ere irabazlea. Festa batzordeko kideok osatzen dugu epaimahaia, eta irizpide zehatz batzuk kontuan hartuta, puntuaketa sistema bidez egiten da aukeraketa.

Egun gutxi falta dira festarako. Nola bizi dituzu azken egun hauek?

Momentuz dena antolatuta dago, eta ustez kontrolpean dute egoera, baina badakit eguna iristen denean, helduen danborrada hasi arte, oso urduri egongo naizela. Dena ez dago zure esku, eta horrek jarritzen nau urduri.

Eta amaitzeko, zer-nolako festak espero dituzu aurten? Herritarrentzat mezurik?

Aurtengo festez denok gozatu ahal izatea espero dut. Denona da festa, eta horren ardura guztiona da. Hori bermatzea espero dut.



1975ean Mendizaleak taldeak jantziak estreinatu zituen; orduan ateratako argazkia da.

AUTOESKOLA UROLA PSIKOTEKNIKOA



- ✓ Baimengak:
- AM
 - A1
 - A2
 - A
 - B
 - B+E
 - C
 - C+E
 - D

- CAP kurtsoak
- ADR kurtsoak

• Gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera

- Gidabaimenak
- Arnak
- Nautika
- Txakur arriskutsuak
- Kirol zurtagiriak



ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

943-81 26 68 • Bustinzuriko Errebala, 3 atzea • urolaonline@hotmail.com 943-81 35 06 • Hartzubia, 31 behea • aurolapsikoteknikoa@outlook.com
 AZPEITIA • www.urolaautoeskola.com



Mendizaleen 50. gailurra

Hainbat eta hainbat mendi tontor igo dituzte Lagun Onak mendi bazkunako kideek 1946an elkartea sortu zenetik. Gertuko Xoxotetik eta Erlotik hasita, urruneko Azore uharteetako edo Albaniako tontorrak ezagutu dituzte. Urtarrilaren 19ko gauerdian, ordea, taldearen gailurrik garrantzitsuenetakoa egingo dute 50. aldiz: helduen danborradarena.



- KONTXI -
ARRAINDEGIÀ



Ondo pasau sansebastianak!

Foru Ibilbidea, 4 • AZPETIA • 943-81 19 46 • Gesalaga,4 • ZESTOA • 943-14 82 47



• TABERNA •
BORDATXO
ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!

Landeta Auzoa • 20730 AZPEITIA • 943-81 20 27

ERAIKUNTZARAKO MATERIALEN SALMENTA
ZOREO, S.L.
MAKINERIA IGOGAILUEN ALOKAERA
ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!

ELIKAGUNEA
ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!

Plaza nagusia 11 • AZPEITIA • 688 68 86 96 • info@elikagunea.eus
www.elikagunea.eus

L. Xaxarki
ESTETIKA ZENTROA
ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!

Elizkale, 44 • Tel: 943-81 19 32 • xaxarkiestetika@gmail.com

Loizano Ignazio Hiribidea, 13 behean
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
943-15 15 11 - 609-479 279
omazpiazu@agencia.axa-seguros.es

AXA aseguruak / berrasmatzen
**ondo pasau
sansebastianak!**

Mendizaleen lokalaren eta tabernaren atea 1973ko abenduaren 16an ireki zituzten. Hilabete eskas geroago, Mendizaleak taldea lehendabizikoz irten zen Azpeitiko danborradan. «Lokal berria izanda, gauza berriak egin beharra ikusten genuen, elkartea herrira ahalik eta gehien zabal zedin. Segituan irten zuen danborradako taldea sortzeko ideia», gogoratu zuen garai hartan elkarteren lehendakari zen Kepa Ibarzabalek Lagun Onak mendi bazkunaren 50. urteurrenaren harira argitaratutako liburuan.

Erabakia hartuta, danbor festarako denbora gutxi falta zela ohartuta, Azkoitiko Beti Poz elkarreak sukaldari jantziak eta barrikak uztea lortu zuten, eta, horrela, sukaldariz jantzita, egin zuten estreinaldia danborradan mendizaleek.

Hurrengo urterako, ordea, jantzi propioa egin behar zutela erabaki zuten. Mendia eta mendizaletasuna oinarri izango zituen jantzia izatea ezinbestekoa zen, eta horrela eutsi zioten tioldarren jantziari. Mendizaletasuna bera asko hedatu zen garai hartan, inguruko mendietatik kanpokoetara eta espedizio handiak egitera igaro ziren kide asko. Mendizaletasunaren jantzi ofizialik ezean, Alpeek eta tioldarrek zaletasun hori irudikatzen zutela erabaki zuen elkarreak.

Garai hartan taldeko kide ziren hainbat gaztek Donostian igarotzen zuten astea, ikasketak zirela eta, eta haiei egokitu zitzaian danborradarako jantzien kudeaketa jarraitzea. Tartean zen Jexux Agirre. «Nahi genuen jantziaren marrazkia egin genuen, eta horren gainean josi zituen arropak jostunak. Gogoan dut oraindik; asteburuetan etortzen ginen Azpeitira eta bi egun horiek aprobetxatzen genituen neurriak hartzeko, gero horiek Donostia-ko jostunari eramateko», kontatu du Agirrek.

Orduetik, mendizaleak tioldarrez jantzita irten dira danborradan: galtza motz beltzak, alkandora zuria, burukoa, galtzerdi zuriak eta oinetako beltzak. Taldeko gastadoreek, berriz, eskiak eta motxilak eramaten dituzte.

Urteetan zehar, aldaketa txiki batzuk izan dituzte jantziek. Kantineren arropak, batik bat; 1991n aldatu zituzten horiek. Danbor jotzaileenei, berriz, xehetasunak gehitu zizkieten duela bi urte; brodatuak, esaterako. «Apaindu egin genuen jantzia, politagoa da orain. Jantzi hotza da, baina ez dugu inoiz pentsatu izan arropa gehiago jantzea. Mendizaleak indartsuak gara, eta hainbat urtetan egin dituen euriteekin eta hotzekin aurrera egin badugu, dagoeneko horrela geldituko da jantzia», azaldu du Lagun Onak mendi bazkuneko kide Andoni Unanuek.

“Gehienez, jaka bat gehitzea izango genuke, baina gure asmoa benetako tioldarren jantzia errespetatzea da,

Azkoitiko Beti Poz elkarreak sukaldari jantziak eta barrikak uztea lortu zuten

1974an, Jose Inazio Agirre zenak hartu zuen taldearen zuzendari lana



ahal den neurrian behintzat», gaineratu du Anjel Mari Etxeberriak.

Semeak aitarengandik

1974ko estreinako urte hartan, Jose Inazio Agirre zenak hartu zuen taldearen zuzendari lana, eta hura mantendu zen postuan 2018ra arte, bere seme Mikelek lekukoa hartu zuen urtera arte. «Aitak urteak zeramatzan bere postua hartzeko esanez, eta, zoritxarrez, 2017an gaixotu egin zen. Ondorioz, 2018an hasi nintzen taldea zuzentzen», azaldu du Agirrek. Agirretarren etxean danborradak beti izan du indar handia: aita Mendizaleen zuzendari, aitona eta izebak umeen danborradako karrozak egin zituzten urte luzez... «Eta ni San Sebastian jaien inguruko datetan jaioa naiz!», gehitu du Mendizaleak taldearen egungo zuzendariak.

Aitaren erreleboa hartzea berezia izan zen semearentzat. «Gaixotu zenez, zertxobait azkarrago hartu nuen postua, baina hunkigarria izan zen. Egia esan, urtero gogoratzen naiz berarekin». Aurten, ordea, gehiago gogoratuko da agian. Izan ere, Mendizaleak taldeak danborradan 25 urte bete zituenean, Mikel aitaren ondoan izan zen, zuzendari txiki lanetan; eta aurten, taldeak 50 urte beteko dituenean, bera izango da zuzendari nagusia.

Txakurraren azken urtea

Azpeitiko helduen danborradaren bereizgarri edo ikurretako bat da Mendizaleak taldearen txakurra. Unanueren ideia izan zen txakurra taldera batzea. Hasieran, txakurraren parte hartzeak «inpaktu eta harrera ona» izan zituela dio, baina azken urteetan gero eta kritika gehiago jaso dituzte. Hala, 2025ekoa txakurraren azken danborrada izango dela aurreratu dute.

«Lan ikaragarria du: txakurra lortu, ohitu... eta gastua ere handia da. Baina, txakurraren zikloa urteurren bereziarekin amaitzea ederra izango dela pentsatu genuen», adierazi du Etxeberriak.

Ezer berezirik ez

Urtero lez, mendizaleen egoitzako jate-txean afalduko du danborradako taldeak San Sebastian bezperan, eta ezer berezirik ez dutela prestatu esan dute: «Urtero-urtero arkumea izaten dugu, eta ezer ez dakigun arren, aurten berdina izango delakoan gaude», esan du Unanuek.

«Argazki eder bat aterako dugu danborrada amaitzean, baina, horrez gain, ez dut uste ezer berezirik egingo dugunik. Tira, ondo legoke xanpain on pixka bat izatea postrean», amaitu du Etxeberriak.



Amenabar
 ondo pasau
 sansebastianak!
 Eliz-kale 32 Azpeitia
 943 150697/685110703
 www.amenabardecoracion.com

biur@hotmail.es
 Erdi Kalea 2/g
 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
 Tel. 943-15 18 03
 @ f
biur
 ondo pasau
 sansebastianak!

KELEN
 BERRIKUNTZAK - ITURGINTZA - GASA ETA BEROKUNTZA
 KLIMATIZAZIOA - AEROTERMIA - GREMIOEN KOORDINAKETA
 ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!
 ARANA KALEA 5, Azpeitia 631 94 73 05

uba
 AUTOEN TRANSFERENTZIA
 FISKALA
 KONTABLEA
 FINKEN ADMINISTRAZIOA
 GESTIO INMOBILIARIOA
 GESTIO LANAK
 ONDO PASAU
 SANSEBASTIANAK!
 Enperan kalea, 45 AZPEITIA | Tel 943-15 75 25 | Faxa 943-15 72 75
 ander@lubagestoria.com - lubapedro@gmail.com

**JOSTALDI
 KIROLAK**
 ONDO
 PASAU
 JAIK!
 Euskalerría, 31 • 943-15 16 39
 www.jostaldikirolak.com



Alar

Loiolako Inazio
Hiribidea 17
943-50 32 10
AZPEITIA

*ondo pasau
sansebastianak!*

ERROTAUNDI
Okindegia

ondo pasau sansebastianak!

Euskal Herria Kalea, 34 • 943-81 61 79

J.B. San Sebastian Harategia

Tel: 943-81 15 94 - Foco Ibilbidea, 4, AZPEITIA
Bertako haragi eta urdaikiak. Etxean aurrez prestatutako jakiak.

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

aisialdi
GASTRO-TOKIA

ondo pasau sansebastianak!

aisialdi gastro-tokia 943 14 20 39

Jim Clark
TABERNA

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

Euskal Herria Kalea, 33
943-08 00 89



Iritzia
Irune Azkune

Azkena balitz bezala

kastolarekin parte hartu nuen lehen aldiz kaleko danborradan. Oso go-goan daukat emozio eta nerbio ugari barruan nituela pasatutako goiz hura. Izan ere, kantinera irteteko zozketan parte hartu, eta halaxe irten nintzen, kantinera; polita izan zen arren, danborra jo gabe geratu izanaren harra hor geratu zitzaidan. Oso danborrada zaleak izan gara beti familian. Askotan bukatu ohi genituen lehengusu arteko juntadizoak etxeko arropa zaharrekin janzkerak moldatu, erratzarekin eta zapi batekin bandera atondu, eta danborradak egiten. Bandera nork eraman erabakitzen nahiko lan izaten genuen boladetan!

Aurten bederatzi urte beteko

dira Irrintzi taldean irteteko lehen aukera izan nuenetik. Aurrez Itsasirekin irten nintzen pare bat aldiz. Baina ur-



«Aurten bederatzi urte beteko dira Irrintzin irteteko lehen aukera izan nuenetik»

teetan utzita eduki nuen parte hartzeko burutazioa, ikusle izatearekin konformatzen nintzen. Urtero lagun berberekin toki berberetan danborrada ikusten genuen, hasierako txistu hotsak sortzen zigun

zirrara konpartituz, ilusioz egoten ginen talde guztiak ikusteko zain.

Behin horrela, ordea, tokia zegoela, eta Irrintzirekin irteteko aukera sortu zitzaidan. Banituen lagun batzuk taldean eta ez nuen bitan pentsatu. Izan ere, urtero irteteko tokia ziurtatuta ez dugunok, aukera dugun bakoitzean azkena balitz bezala aprobeztatzen dugu, entseguetatik hasten gara disfrutatzen. Taldean danborradaren bueltan sortzen den giroa ezin hobea izaten da, baina ezin ahaztuguk ongi pasatzeko eta dena ongi irteteko bazkideen artean egin ohi duten lan guztia! Dena ongi bidean, aurten ere hor izango naiz, azkena balitz bezala!

Inoizko danborrada parte hartzaileena

Kaleak eta plaza herritarrez beteko dira San Sebastian bezperan, 22:00etatik aurrera. Inoizko desfile parte hartzaileena izango da aurtengoa, Perdillegi taldea batuko baitzaio danbor festari.

Hasi da inoizko helduen danborrada parte hartzaileenerako atzera kontaketa. Bihar, asteartea, hasiko dituzte aurtengo danborradarako entseguak, eta igandean hasiko da 24 orduko festa. Berrikuntza nagusi bat izango du aurtengo festak, izan ere, talde berri bat batuko zaio helduen danborradari: Perdillegi elkarteak. «Gozoz eta ilusioz» daudela aurreratu dute talde berriko kideek.

Guztira 31 taldek parte hartuko dute, beraz, aurtengo desfilean. Inoizko jendetsuena izango da San Sebastian bezpera.

Gaua danbor hotsez bete aurretik, ordea, izango dira aurreko lanak: ile apaindegietan izango dira gaueko danborren desfilean aterako diren kantinerak eta banderadunak; soziedadeetan afariak prestatzen emango dituzte azken orduak; eta soinu teknikariak-eta Perez Arregi plazatxoan pantaila erraldoia muntatzen eta kale-

ko megafoniaren soinu probak egiten arituko dira, besteak beste.

Ordua iristearekin batera, berriz, Azpeitiko kaleak herritarrez beteko dira helduen danborradaz gozatzeko. Desfilea Olazko Andre Mariaren Plazaren ondotik abiatuko da, 22:00etan, eta parte hartuko duten 31 taldeak hurrenkerara honetan ibiliko dira kalez kale Alde Zaharrean: Oñatzbideko gastadoreak, Basazabal, Ziripot, Landeta Egiza-



lazko helduen danborradako une bat. ARNAITZ RUBIO APREA



Iritzia
Kepa Urbieta

Egia txiki batzuk

Danborradaz egia batzuk, nireak: ez dira gauza bera *San Sebastian martxa* eta sansebastianetako *martxie*. Bi eredu dira, kontrajarriak. Lehenengoa solemneegia, geldoegia, inoiz idiarena jo gabea bezalakoa; bigarrena, anabasa hutsa, arduragabea, *tatiago* esateko ere ezgauza bada, pentsa jotzeko!

Gauza bera ez diren bezala *Soreasuko Sebastian* parrokiaren edota Telefonika aurrean. Danborradako unerik politenetako bat bata, ekitaldiaren erdigunean, ospakizunaren dianan, Udal Bandaren zuzeneko musikarekin; bestea, berriz, apendizetako bat, danbor-jole erdiak tabernetan, beste erdia pantaila bati begira. Aukerak badira: hestea moztu edo diana txikia bihurtu.

Egiak esaten hasita, neure

agurra geroz eta gertuago ikusten dut. Alardea egiten dugu gure danborradaz, plazako hamabietako irudiaz, talde kopuruaz, ematen dioten koloreaz. Ederra da, batasuna ondo dagoelako.

Desfilea doan neurri berean ari da luzatzen ibilbidean zehar edota plazan zain egon beharra ere. Geldiune gehiegi nire gusturako. Goizeko izarra den parrokiako uneak ere barne-gatazkak sortzen dizkit; kristau zintzoa ez izatearen ajeak. Aitortu behar dut, ordea, orain artean eta txikitatik, oso sansebastian zalea izan naizela; txikitatik, bost bat urtez ateratzeko zorzea izan nuela; handitan talde batean atera nahi nuela eta, urte askoan, egin ere egin dudala. Aitortuko dut musika zalea naizela, eta festa hauetako doinuak ere asko gustatzen zaizkidala. Gogo-

koenetakoa *Mandioko Polka* dudala (irakurri dut berriki joan zaigun Pedro Illarramendi izan zela Azpeitiko danborradaren sortzaileetako bat; eskerrik asko festengatik, Pedro. Aurtengo polka zure omenez! Besarkada bat familiari).

«Hau dek hau! Festak dituk!», pentsatuko du baten batek. Festak dira, bai. Bakoi-tzak ulertzen ditu bere erara, ospatuko ditu nahi dituen bezala, joango da zuzen edo egingo du dantza, adieraziko du



«Goizeko izarra den parrokiako uneak ere barne-gatazkak sortzen dizkit»

adieraztea nahi duena, sartuko ditu sudur puntan jarritako guztiak eta edango ditu gauari kendutako gradu bero guztiak petaketan sartuta. Berdin dit horrek, baina musikaren errit-mora jo dezagun behintzat.

Horiexek nire egia txikiak, eta azken bat opari: idazki honetan danborradako gure doinu guztien izenak daude. Atzeman al dituzu?

Ondo pasatu sansebastianak!

le, Alkertasuna, Ollagorra, Loiolabide Zahar, Zulozabal, Loiolatxo, Itsasi, Harkaitza, Etxera, Arrantzaleak, Gure Ametsa, Ardozaleak, Iraurgi Saskibaloia, Mendizaleak, Barratsu, Zezenzaleak, Barranetxea, Ilunpe, Inpernue, Izarraitzpe, Perdillegi, Oilo-Soro, Irrintzi, Txalintxo, Arauntza, Sanjuandegi, Izarraitz Txoko eta Zokoa. Guztira, 1.600 herritar baino gehia-

gok parte hartuko dute desfilean, 31 taldetan banatuta. Goiko Kalean eta plazan behera, Done Jakue kaletik iritsiko dira taldeak parrokiara eta Perez Arregi plazara, eta bi toki horietan kokatuta joko dute aurreneko aldiz *San Sebastian martxa*. Gaueko lehen geldialdiaren ondotik, Elizkale, Plaza Txikia eta Enparan kalea pasatu, eta Perez Arregitik Erdikalean gora igoko dira plazarai-

no. Talde guztiak plazan direla eta gauerdiko kanpaiekin batera igoko dute herriko bandera udaletxeko balkoi nagusian. Mendizaleak taldeak dagokion omenaldia jasoko du udal-txean bandera igo ondoren, aurtun 50 urte beteko dituelako danborradan.

UKTk zuzenean

San Sebastian bezperako helduen danborradaren zuzene-

ko emankizuna egingo dute Urolako Komunikazio Taldeko (UKT) hedabideek. Azpeitia Gukaren webgunean -azpeitiaguka.eus- eta Guka telebistan ikusi ahalko da danborradaren saio berezia.

21:30 aldera hasiko da saio hori, eta Nerea Arakistain eta Iñaki Odriozola kazetariak gidatuko dute. Bi aurkezleekin hizketan izango dira hainbat gonbidatu berezi; besteak

beste, zuzeneko saioan parte hartuko dute Nagore Alkorta alkateak, Mikel Odriozola Festa batzordeburuak zein Jose Luis Frantsesenak, Azpeitiko danborradako pieza eza-gunetako batzuen egileak. Danborrada zuzenean jarraitzeaz gain, erreportajeak ikusteko aukera izango dute ikusleek San Sebastian bezperako saio berezian. 00:30ean amaituko da zuzeneko emankizuna.

Azal-analisiak dermo aholkurako
Arrisku kardiobaskularra neurtzea
Pastileroa prestatzea
Nutrizio zerbitzua



Artetxe-Bastida
Farmazia



@artetxebastidafarmazia
688 69 98 88 - 943-81 19 49
Urbitarate 3, Azpeitia



Aurtengo helduen danborradan 31 taldek parte hartuko dute. Hona hemen horien jantzien inguruko informazioa, sorrera urtea eta jotzen duten danbor mota.



OÑATZBIDEKO GASTADOREAK

Sorrera: **1959. urtea.**
Txapa.



IRRINTZI

Sorrera: **1975. urtea.**
Danborra.



TXALINTXO

Sorrera: **1979. urtea.**
Txapa.



ARAUNTZA

Sorrera: **1970. urtea.**
Danborra.



SANJUANDEGI

Sorrera: **1992. urtea.**
Txapa.



IZARRAITZ TXOKOA

Sorrera: **2007. urtea.**
Danborra.



ZOKOA

Sorrera: **1992. urtea.**
Danborra.



BASAZABAL

Sorrera: **2008. urtea.**
Txapa.



ZIRIPOT

Sorrera: **2008. urtea.**
Danborra.



LANDETA-EGIZALE

Sorrera: **1966. urtea.**
Txapa.



ALKARTASUNA

Sorrera: **1967. urtea.**
Danborra.



OLLAGORRA

Sorrera: **2011. urtea.**
Txapa.



LOIOLABIDE ZAHAR

Sorrera: **2011. urtea.**
Danborra.



ZULOZABAL

Sorrera: **2011. urtea.**
Danborra.



LOIOLATXO

Sorrera: **2011. urtea.**
Danborra eta txapa.



ITSASI

Sorrera: **1984. urtea.**
Danborra eta txapa.



HARKAITZA

Sorrera: **1979. urtea.**
Danborra.



ETXERA

Sorrera: **1981. urtea.**
Txapa.



ARRANTZALEAK

Sorrera: **1969. urtea.**
Danborra.



GURE AMETSA

Sorrera: **1966. urtea.**
Txapa.



ARDOZALEAK

Sorrera: **1971. urtea.**
Danborra.



IRAURGISB

Sorrera: **2004. urtea.**
Danborra.



MENDIZALEAK

Sorrera: **1974. urtea.**
Txapa.



BARRATSU

Sorrera: **1981. urtea.**
Danborra.



ZEZENZALEAK

Sorrera: **1967. urtea.**
Txapa.



JULIAN BARRENETXEA

Sorrera: **2002. urtea.**
Danborra.



ILUNPE

Sorrera: **2020. urtea.**
Txapa.



INPERNUE

Sorrera: **2020. urtea.**
Danborra.



IZARRAITZPE

Sorrera: **2020. urtea.**
Txapa.



OILO-SORO

Sorrera: **2004. urtea.**
Txapa.




PERDILLEGI

Sorrera: **2025. urtea.**
Danborra.



PARROKIAN




Danbor taldeen irteera hurrenkera:

- 1.- Gastadoreak
- 2.- Basazabal
- 3.- Ziripot
- 4.- Landeta-Egizale
- 5.- Alkartasuna
- 6.- Ollagorra
- 7.- Loiolabide Zahar
- 8.- Zulozabal
- 9.- Loiolatxo
- 10.- Itsasi
- 11.- Harkaitza
- 12.- Etxera
- 13.- Arrantzaleak
- 14.- Gure Ametsa
- 15.- Ardozaleak
- 16.- Iraurgi SB
- 17.- Mendizaleak
- 18.- Barratsu
- 19.- Zezenzaleak
- 20.- Barrenetxea
- 21.- Ilunpe
- 22.- Inpernue
- 23.- Izarraitzpe
- 24.- Perdillegi
- 25.- Oilo-Soro
- 26.- Irrintzi
- 27.- Txalintxo
- 28.- Arauntza
- 29.- Sanjuandegi
- 30.- Izarraitz Txoko
- 31.- Zokoa

HERRIKO PLAZAN

UDALETXEA





Txema Egiguren eta Trini Alberdi familia osoarekin, Hendaiaiko danborradan.



Gora San Sebastianak!

Kimubat Taldeko kideak festa zoriontsua izan dezazuela opa dizuegu!

Urrestila bidea, 2/g. Azpeitia | 943 15 00 85 | www.kimubat.eus





Lapurdira eraman zuten Azpeitiko festaren kimua

Txema Egiguren zenak eraman zuen danborrada Hendaiara, 2007an. Azpeitiko kimuak eramanda, ezaugarri propioak ezarri zituzten Lapurdiko herrian egiten den festan: jantziak, musika.... Egigurenen familiak danbor festaren bueltan jarraitzen du.



Ostalaritzarako hornigaiak

Ondo pasau sansebastianak!





Hendaiako danborrada.

Hi zoratuta hago! Nola ekarriko duk ba San Sebastian festa Hendaiara? Ez duk inor etorriko, 200 pertsona ere ez dituk bilduko', esan nion. Eta bere erantzuna. 'Berdin zait zenbat pertsona biltzen ditugun, hurrengo urtean gehiago izango gara!'. Oso baikorra zen beti, eta ikusi besterik ez dago gaur egun zenbat pertsona elkartzen diren Hendaiako danborradan». Horrela gogoratu du Hendaiaren (Lapurdi) bizi den Trini Alberdi azpeitiarrak bere seme Txema Egiguren zenak Hendaiaren danborrada egin nahi zuela esan zioneko unea.

Hala, 2007an egin zuten lehendabizikoz danborrada Hendaiaren. Lehen aldi haren aurretik, urteak igaro zituen festak antolatzen-eta Egigurenek. Lehen urte hartan, danborrada informala izan zen; baina, izandako harrera ikusirik, hurrengo urteetan formalagoa bilakatu zen danbor festa. Bixintxo festen barruan egiten dute danborrada Lapurdiko herrian. Festa

horiek ez dute data zehatzik, urtarrilean zehar izan ohi dira, baina jaietako asteko larunbatean egiten dute hendaiarrek danborrada. Normalean, Azpeitiko sansebastianen ondoren. «Barruak eskatzen zion» Egigureni Azpeitiko festa esanguratsuen zati bat Hendaiaren izatea. Inauterien antolakuntzan ere murgilduta, danborradaren doinuak ere eraman nahi zituen bizitokira; Azpeitian esan ohi den bezala, «saltsero hutsa» zen Egiguren. Horrez gain, euskal giroa sustatu nahi zuen hark Hendaiaren. «Hendaiarrak bildu eta horiek euskararen bueltan festa egitea ere nahi zuen», dio Maddi alabak. «Gu oso txikiak ginen, baina garai hartan, Hendaiako festek ba omen zuten arrakasta, jende asko elkartzen zuten, baina ekitaldiz nahiko txepelak ziren, eta aitak bazuen gogoia denak bildu eta zerbait handia izan zitekeena antolatzeko», gaineratu du Arantza alabak. Danborradako taldeak edo konpainiak Hendaiako auzoetako eta elkarteetako kideek osatzen dituzte. Elkarte bako-

Bixintxo festen barruan egiten dute danborrada Lapurdiko herrian

Trini Alberdik oraindik gogoan du nola bizi zituen sansebastianak gaztetan



EITEN
ARROZTEGIA

Eman egurre danborrei!



Maddi Eiguren, Trini Alberdi, Arantza Eiguren, Unax Eiguren eta Karmele Aizpiolea.

tza auzo batekin lotu, eta goizean zehar bakoitzak bere ibilbidea egin ondoren, auzo eta elkarte guztiak udaletxearen aurrean elkartzen dira, han denek batera danborrak astintzeko. Poliki-poliki, danborrada indarra hartzen joan zen Hendaian, eta hamasei konpainia eta 600 pertsona inguru biltzea lortu du azken urteotan. Hala ere, Hendaia ukitua izan zedin, Azpeitiko danborradarengandik urruntzen duen aldaketak sartu zituen Eigurenek hango festan.

Musika eta jantziak

Nahiz eta azpeitiarrak sortua izan, Hendaia danborradak esentzia propioa du. Hala, pieza eta jantzi propioak ditu. Danborrada sortu zutenean, Azpeitiko eta Donostiako abestiekin ekin zioten festari, baina, gaur egun, badituzte Hendaian bertan sortutako piezak. Hori bai, plazan biltzeanelkartzen direnean, Realaren ereserkia jotzen dute. Unax, Eigurenen semea, txikia zelarik zuzendari atera zen; eta Realaren zale amorratuak izanda, ereserkia jotzea erabaki zuten. Ordutik, ohitura bihurtu da.

Jantziek, berriz, badute beste bereizgarri bat: Azpeitiko eta Donostiako talde askoren jantziek duten soldadu eta guda ukitutik urruntzen dira. Izan ere, Bixintxoek Etienne Pellot Hendaia kortsario ospetsua herrira itzuli izana ospatzen dute, eta haren oroimenez, piratekin, arrantzaleekin eta itsasoarekin lotura duten jantziak erabiltzen dituzte. «Aitak esaten zuenez, janzkera militarrekin apurto nahi zuen. Horregatik erabaki zuen jantziek ez izatea ukitu militar hori, eta euskal kulturarekiko lotura gehiago bultzatzea. Horrekin batera, argi zuen berdin zuela pertsonak zer genero duen, eta denak berdin janztea ere erabaki zuen».

Azpeitiko danborrada

Trini Alberdik oraindik gogoan du nola bizi zituen sansebastianak gaztetan. «Beti lanean nongoen data horietan, Artetxenean egiten nuen lana eta handik ikusten nuen danborrada. Gero, or-

Hamasei konpainia eta 600 pertsona inguru biltzea lortu du azken urteotan

Nahiz eta azpeitiarrak sortua izan, danborradak esentzia propioa du

ZUAR
kafetegi - okindegia
azpeitia
ONDO PASAU SANSEBASTIANAKI!

Loiolako Inazio Hiribidea 79, behea
tel 943-53 20 42 • zuarazpeitia@gmail.com



Zuri Beltz

Ondo pasau sansebastianak!

Olatzko Amaren Plaza, 10 | 843 63 10 62
zuribeltz.ana@gmail.com | 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

agirre
oparidenda
atera danbor hotsak!

erdi kale, 1 • 943-81 13 25 • azpeitia

ondo pasau sansebastianak!

B&R
Braserie
Landeta 1, AZPEITIA 943122573

G
GERTU
- Lurrindegia -

Erdikale Kalea, Z/G • AZPEITIA
943 81 43 58 • gertulurrindegia@gmail.com

**20****Sansebastianak**Astelehena, 2025eko urtarrilaren 13a **GUKA**

dea, Donostiara joan nintzen, eta ezin izan dut parte hartu inoiz herriko festan. Hala ere, ni bezalako baserriko ume batek ez zuen aukerarik danborradan irteteko».

Hala ere, arantza kentzeko aukera izan zuen Alberdik, eta Hendaiaiko danborradan irten zen: «Semea bizi zela izan zen. Eskatu egin zidan, dagoeneko gaizkizegoen, eta ezin izan nion ezezkorik esan... Zer diren gauzak, ordea, behin aterako danborradan, eta Hendaiaiko egunkariko azalean jarri ninduten!». Nola ez, egigurendarrak Azpeitiko danborradan izanak dira, eta «asko» gustatzen zaiela onartzen dute. «Gogoan dut gurasoak eta hirurok izan ginela, gauzez iritsi ginen eta duen xarma berehala ikusi nuen: koloreak, jantziak... Hendaiaikoa polita da, baina Azpeitikoa ederra da. Bien arteko desberdintasun hori ikustea gustatu zitzaidan; gainera, are bereziagoa da amona azpeitiarra dela jakinda», gogoratu du Maddik. Azpeitiko herritarrek eta danbor jotzaileak

ere izan dira Hendaiaiko danborradan. Esaterako, 2019an, Ziripot elkarteko kideak Hendaian izan ziren, Bixintxo jaietako danbor festan parte hartzen. Horrez gain, Donostiako Union Artesana elkarteak gonbidatuta, Donostiako danborradan izan ziren afaltzen Egiguren eta Karmele Aizpiolea haren emaztea. Hondarribiko Jaizkibel konpainiak, berriz, saria eman zion Hendaiaiko danborradari 2021 urtean, sortu zenetik berdintasunaren alde egindako ekarpenagatik.

Eutsi nahian

2021eko martxoan hil zen Egiguren, eta ordutik, Hendaiaiko danborrada «tristetzen» joan da. Egiguren familiak «distantzia apur bat hartu» antolakuntza lanarekiko, Arantzak dioenez: «Egia da aitak sortu zuela, baina herriarentzat egin zuen, eta nahi duenak ateak zabalik ditu Hendaiaiko danborradan. Parte hartzen dugu, beti egin dugulako eta aitarekiko lotura hori beti egongo delako».

«Jende eta motibazio falta daude. Azkenean, Txema zen indarra eta gogoia jartzen zituena, eta harena bezalako figura baten ezean, zailagoa egiten da dena ondo antolatzea», dio Aizpioleak. «Aukera bat izan daiteke haurren danborrada sortzea, horrek beti eragiten duelako mugimendua eta Hendaian ikastetxe asko daudelako, baina ikastetxe horiekin guztiekin hitz egin beharko litzateke, eta ardura dutenei Txemak zuen indarra falta zaie. Duela hamar urte inguru haurren danborrada egitearen ideia komentatu egin zen, baina, ez zen atera. Horrek festari bultzada handia emango liokeela uste dut, umeak eta helduak, denok kalean», gehitu du Egigurenen alargunak «Txema gabe ez dela gauza bera esan didate», gaineratu du Alberdik. Aurtengo Bixintxo festak antolatuta daude dagoeneko, eta danborrada urtarrilaren 25ean egingo dute. Aurretik, hiru entsegu egingo dituzte: hilaren 8an, 11n eta 15ean. Azken entsegu horrek, ordea, aldaketak izango ditu, izan ere, Hendaiaiko plaza obretan dago, eta, beraz, konpainia guztiak ezingo dira han elkartu. «Danborradaren egunean, berriz, auzoek eta elkarteek euren kabuz joko dute danborra, ondoren bazkaria egiten da, eta arratsaldean, udaletxe aurrean denok elkartzen gara berriro jotzeko danborrak eta bertan amaitzeko. Aurten, ordea, beste plazaren batean jo beharko dugu», azaldu du Arantzak. Danborradari jarraipena ematearen ardura beren gain egotearen «presio» pixka bat sentitzen dutela esan du Arantzak, baina herriaren erantzuna eta laguntza espero dituzte: «Ez dugu esaten gu gabe egitea, baina bai gidaritzat. Hendaia bitan banatutako hiria dela esan daiteke, hizkuntza eta ohitura aldetik, baina denok batera zerbait egiteko aukera bikaina da danborrada. Irekia da, denontzat, eta konpromiso bat behar da urtero bertan egoteko». Maddik, berriz, garbi du ez dela beren balioetan kokatzen «aitak sortutako zerbait atzean gelditzen uztea». Hark urteetan «zenbat lan, esfortzu eta ahalegin egin zuen» jakinda, «bete-behar bat ez, baina danborrada mantentzen laguntzea poztasunez egingo nukeen zerbait da», gaineratu du Egigurenen alabak. «Iaz nire belarrietara iritsi zen alkateak esandako zerbait: 'Txemak zer gauza ederra ekarri zigun Hendaiaira!'. Eta horregatik bakarrik, bere oroimenagatik, haren omenez egin daitekeen onena izango litzateke Hendaiaiko danborradak osasuntsu jarraitzea», amaitu du Alberdik.

Softekin

INFORMATIKA

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Iberotarren Plaza 8 behea 20730 AZPEITIA - GIPUZKOA • 943-81 51 51 • softekin@softekin.com

www.softekin.com



BieleGroup

PASSION FOR CHALLENGES

*Ondo pasau
sansebastianak!*

Bulego nagusia

Larrañaga Industrialdea, 1 - 20738 Urrestilla, AZPEITIA Gipuzkoa (España)

Tel.: +34 943 15 70 50

biele@biele.com

www.biele.com



NOLA BIZI DUTE DANBORRADA?



LUIS FERNANDEZ (Sanjuandegi)

Duela 33 urte, Sanjuandegi auzoko festak antolatzen genbiltzan lagun talde bat ginen. Eta Azpeitiko Udalak eta tabernariak emandako laguntzei eta zenbait zozketari esker, danborradako taldea sortzea pentsatu genuen. Ordutik, Sanjuandegi taldearekin irteten naiz danborra jotzen. Aurretik beste bi alditan atera nintzen danborradan, baina jantzia uzten zidatelako.

Danborradan irtetea eta danborra jotzea dira, nire ustez, festek duten ederrena. Lagunekin denbora ederra pasatzen dut, nahiz eta gure adinekoak gero eta gutxiago gauden... Baina 19:00 alderako bezperako afarira joan, garaiz ibiltzeko, eta denbora ederra pasatzen dugu elkarrekin.

Orain erretiroa hartuta nago, baina lanean aritzen nintzenean ere sekula ez nuen arazorik izaten afarira irteteko. Normalean arratsaldez libre izaten nuen, edota lanera joanda ere, lehenago ateratzen nintzen afaltzera joateko.

Gehien gustatzen zaizkidan festak dira sansebastianak, dudarik gabe. Askok gozatzen dut, eta festak motzak egiten zaizkit. Azken urteotan talde gehiago sartu diren horrekin, ea danborra jotzeko tarte gehiago dugun.



AITZIBER MENDOZA (Ilunpe)

Txikia nintzela eskolakoekin irten ondoren, ez nuen sekula danborradan parte hartzeko aukerarik izan. Beno, banderadun gisa ateratakoa naiz. Hala, duela hiru urte hasi nintzen danborradan parte hartzen, Ilunpe taldearekin.

Danborradako egunean goizago irteten naiz lanetik, garaiz ibili ahal izateko, eta goiz hasten den afarira irteteko. San Sebastian jaiak musikak sortutako eta haren bueltako festak dira, eta oso polita iruditzen zait hori. Are gehiago, taldean eta lagun artean egiten duzun festa izanda.



MIRIAM ARRIETA (Irrintzi)

Nahiz eta gehien gustatzen zaizkidan festak ez izan, oso gogoko ditut sansebastianak. Horren seinale da kantinean gisa hiru alditan atera naizela -Irrintzirekin, Harkaitzarekin eta Landetarekin-, eta danborra jotzen, berriz, Itsasirekin irten nintzen behin, eta 2001. edota 2002. urteaz geroztik, Irrintzi elkartearekin irteten naiz urtero danborra jotzen; hain juxtu, taldean emakumeen parte hartzea onartu zutenetik.

San Sebastian bezperan badut ohitura moduko bat: arratsaldetan ikastolako umeen danborrada ikusten dut aurrena; ondoren, etxera joan, arropak hartu eta poteoa egiten dut afaltzera joan aurretik. Oso ondo pasatzen dut afaritan, giro ederra izaten dugu.

Izarratiz pilotalekuan egiten ditugun entseguak ere gozatzen ditut. Gero, danborrada aurretik, danborra jantzi eta irten aurreko uneak ere gustukoak ditut, urduritasun pixka bat izaten dut. Eta danborradan bertan, berriz, une batekin gelditu beharko banu, hasierarekin izango litzateke. Lehenbiziko abestia hasten den unea eta lehen pauso horiek ematea, hori da gehien gustatzen zaidana.

ONDO PASAU SAN SEBASTIANAK!

IRURENA GROUP
ADVANCED TECH COATINGS

Gure pinturak Landeta Brikodendan aurkitu ditzazkezu. Gerturatu zaituzte!

landeta
brikodenda

AITZOL LARRAÑAGA (Izarraitzpe)

2020an atera zen lehendabizikoz Izarraitzpe elkarte helduen danborradan, eta hasieratik nabil ni taldean. Lehen, Irrintzi elkartearekin irteten nintzen, baina Izarraitzpen taldea sortu zenean, jantzia egin eta elkarte horretako taldearekin irtetea erabaki nuen. 2020an bertan, ordea, COVID-19a etorri zen eta hurrengo bi urteetan ezin izan genuen irten, baina iaz itzuli ginen festara eta aurten ere bertan izango naiz.

Danborrada aurreko afaria 19:30ean hasten da normalean, eta oso ondo pasatzen dut, giro polita izaten dugu. Danborradan bertan, berriz, bi geldiuoneak ditut gustukoen, hau da, Soreasuko Sebastian Donearen parrokiaren egiten dena batetik, eta plazakoa azken egonaldia, bestetik. Bi une horiek gustatzen zaizkit gehien.



MARKEL MENDIZABAL (Gure Ametsa)

Niretzat, San Sebastian festek konpetentzia handia dute inauteriekin, batik bat, Elegante Egunarekin, baina oso gustukoa dut danborrada. Elegante Eguna eta San Sebastian bezpera, biak parean jarriko nituzke, eta zaila izango litzateke niretzat bat hautatzea.

2006. urtean hasi nintzen helduen danborradan parte hartzen, Txalintxo taldearekin, hain zuzen ere. Urte batean, 2010ean, Arauntza elkartearekin atera nintzen; eta 2018az geroztik, berriz, Gure Ametsa elkartearen danbor jotzailea naiz.

Zortez, gainera, azken urteetan Donostian eta Azpeitian aritu naiz lanean, eta San Sebastian eguna jai izan dut; ondorioz, bezperan ere lasai ibiltzeko aukera izan dut beti, asko gozatzeko gogoz. Elkartearen afaltzeko biltzen garenean sortzen den giroa gustatzen zait, asko gainera. Gero, agian topikoa izango da, baina danborradan bertan parrokiako uneak hunkitzen nau gehien; plazakoak baino gehiago. Historia irakaslea izanik, parrokiako geldiuonearekin geldituko nintzateke.



MONIKA BAYON (Landeta-Egizale)

Arrantzaleen taldearekin parte hartu nuen lehendabizikoz helduen danborradan, banderadun gisa. Horren ondoren, bizpahiru urtez Etxera taldearekin atera nintzen, eta dagoeneko 20 urte dira Landeta-Egizale taldearekin ateratzen naizela, barrika jotzen.

San Sebastian bezpera nahiko egun estresagarria izan da niretzat, batik bat, semeak txikiak zirela, haien eskolako danborradak ikusi eta dena prest utzi behar izaten nuelako. Gainera, seme gaztea egun horretan jaiotakoa da, eta dena ahalik eta ondoen antolatu nahian ibiltzen nintzen. Gaur egun, hobeto eramaten dut. Motots berezia egin behar izaten dugu Landeta-Egizale taldean, eta ia inoiz ez da lehendabizikoan ateratzen; beraz, zenbat eta denbora gehiago izan horretarako, hobe! San Sebastian festek badute zerbait berezia; niretzat, Azpeitiko gainontzeko festen gainetik daude. Parte hartzea gustatzen zait danborradan, abestiek ere zirraraz sortzen didate; eta gero, giroa dut gustuko. Denok alai egoten gara, hasiera-hasieratik gainera, prestatzen hasi orduko, afaritako unea... Dena da ederra.



Etxerako instalakuntzak |

Argiteria | Bainuak

Sukaldeak | Lokalak

atera txinpartak festei!

Izarraitz auzoa, 66 | AZPEITIA
606 30 63 68 | axkiola@gmail.com



24

Sansebastianak

Astelehena, 2025eko urtarrilaren 13a **GUKA**



Leire Iriarte, Eneko Rajado eta Ane Agirre.

GLUAL
hydraulics

ondo pasau sansebastianak!

Landeta hiribidea, 11 • Azpeitia • Tel.: +34 943 15 70 15 • comercial@glual.com • export@glual.com

www.glual.com



Hastear da ezpatadunen jokoa

Estreinakoz irtengo da danborradan igandean Perdillegi elkarteak. Karta jokoetako ezpatadunaren jantzia aukeratu dute, elkartearen sorrerarekin eta sustraiekin lotura eginez.

BIEK
CARPINTERIA AROZTEGIA AZPEITIA

ASTINDU ONDO
DANBORRAK

943-15 74 47 / 661 50 56 75 • info@carpinteriabiek.com
www.carpinteriabiek.com



main
 tabernakoan partetik,
 ondo pasau
 sansebastianak!

Eliz kale 5, behea - AZPEITIA - 943-88 78 56

 **JON
 ESNAOLA**
 ONDO PASAU
 SANSEBASTIANAK!

Jose Artetxe 6. behea • Azpeitia, GIZUKIA
 48001 • 943-69 45 06

**ONDO PASAU
 SANSEBASTIANAK!**



Julian Elortza Hiribidea
 AZPEITIA
 943-15 63 27

Erregistro zenbakia: 54/20



INNOVA
 MORTZ KLINIKA
 Ondo pasau sansebastianak!

Jose Artetxe, 5 · 943-02 59 55 · 625 19 58 85

 *villegas larrea*
 arraindegia

943-81 68 91
 Enperan, 29 • AZPEITIA

**ONDO PASAU
 SANSEBASTIANAK!**



Bada Jose Artetxe kalearen erdian, Gaur Txori diskoteka ezaguna zenaren gainean, elkarte gastronomiko bat. Azpeitiko erdigunean, aurretik jende asko igaro arren, oharkabean gelditzen dena: Perdillegi du izena.

Azpeitiko soziedade zaharrenetakoa izan arren, Perdillegi elkarteak aurten izango du estreinaldia danborradan. Urteetan hitz egin izan dute elkartekoek danborradako taldea sortzeaz, baina asmoak ez zuen aurrera egiten, beharrezkoa zen jende kopurua ez zegoelako prest. «Elkarte askotan geratzen ari den bezala, mugimendu gutxi zegoen gurean, eta danborradako taldea osatzea bazen bazkide berriak lortzeko pizgarria. Azken urteetan gazteak bazkide egiten hasi dira, eta horiek danborradarako gogoz ziren; ondorioz, errazagoa izan da taldea sortzea», azaldu du Ane Agirrek.

Hala, 2023ko batzarrean erabaki zuten danborradako taldea sortzea, eta horrela jarri ziren abian. Zerrenda jarri zuten elkartearen, baina ez zuten berehalakoan osatu. «Hasie-

ran kostatu egin zen, eta jende bila hasi beharko genuela ere komentatu genuen. Baina, bat batean, zerrenda bete zen, eta taldea sortzeko nahiko pertsona ginen. Are gehiago, ezezkoak eman behar izan ziren», kontatu du Leire Iriarte taldekideak.

«Udalak muga bat jartzen du. Oso oker ez banago, gehiezin 55 pertsona irten daitezke danborradako talde bakoitzean, kantinera eta guzti. Eta muga horretara iritsi ginen udalean eskaera egitera gindoazela. Hori 2023ko azaroan izan zen», gaineratu du Agirrek.

«Horrela da. 2024ko danborradan ateratzeko aukera eman zigun udalak, baina ez zegoen dena prest izateko asirik, eta, beraz, aurten izan-

Perdillegi aurten du estreinaldia, elkarte zaharrenetakoa den arren

Lan eta intentsitate askoko urtea izan da taldeko kideentzat, baina prest daude

go dugu lehendabiziko aldia danborradan», gogoratu du Iriartek.

Karta sortatik

Perdillegi elkarteak duela urte asko eratu zuten, 1960ko hamarkadaren hasieran. Garai hartan, egungo Jose Artetxe kalearen inguruan ez zegoen eraikin asko, eta elkartearen asmoa garbia zen: karta jokoan ibiltzeko auzotarrentzat gunea izatea. Sorrera hartatik hartu dute danborradako taldearen jantziarentzat ideia nagusia: karta sortako ezpataduna, hain zuzen ere. «Taldeen garbi genituen jantziak izan behar zituen ezaugarriak: euskal ohiturekin zein karta jokoekin lotura izan behar zuen. Hortik atera genuen jantziaren ideia», esan du Iriartek.

«Kontuan hartu behar da danborradako 31. taldea gaila. Jantzi ugari dagoen arren, zerbait desberdina ere nahi genuen. Eta lortu dugulakoan gaude», esan du Eneko Rajado taldekideak.

Horrela, azken urtean jantzietan murgilduta ibili dira. Diseinua garbi izanda, detailak zehaztu behar zituzten; zuzendariaren jantziaren



ondo pasau sansebastianak!
FORU IBILBIDEA, 5 BEHEA • AZPEITIA • 646 00 33 90



Donejakue kalea, 6 tel.: 943-81 18 24
20730 azpeitia (gipuzkoa)
orrakerak
INAXITA
ile-apaindegia
ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Ongi Etorri
J A T E T X E A
ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!
Salbe Auzunea, 21 • 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 150 869



ALUMINIOS AZPEITIA
Landeta Auzoa - Arretxe kalea, 13 • Apdo. 112
Tel. 943 81 18 32 •
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
ONDO PASAU SANSEBASTIANAK! **Aluminier** **TECHNAC**



adi optika/audio zentroa
Aural
CENTROS AUDITIVOS
Premium Partner
Azpeitia Jose Artetxe 21 943-15 78 74 643 63 73 65 www.adi.eus



AVIA

- Erregaiak • Butanoa • Zerbitzu pertsonalizatua
- Deskontuak Avia txartelarekin
- Deskontuak Azpeitia txartelarekin

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK

Ezkuzta pasealekua, z/g • AZPEITIA

E·G·A·N·A

GOZAU SANSEBASTIANAK!



GOIKO-KALE, 10 • 943-81 18-85 • LANDETA HIRIBIDEA, 19 • 943-81 50 09
www.eganagozotegia.com

IO

losu Optika

OPTIKA AUDIO

Ondo pasau sansebastianak!

ERCI KALEA, BEHEA ZG • 943 15 12 91 • AZPEITIA

RPS 56-20



korrale
taberna

Ondo pasau sansebastianak!

Erdi kalea 27, Azpeitia | 943-81 06 01



landeta
brikodenda

ondo pasau sansebastianak!

Landeta hiribidea, 8 • Azpeitia • 943-81 25 66
www.landetabrikodenda.com



Perdillegi elkarte.

desberdintasunak edota banderadunaren eta kantineren jantziak. Zuzendariaren jantziak, adibidez, ukitu beltzak izango ditu. Kantinerena, aldiz, zailagoa izan dela onartu du Iriartek: «Jantzi zehatz bat gabe, beste elkarteetako gonak eta jakak eskatu genituen, ereduak ikusteko. Argi dugu urtero pertsona desberdinek erabiliko dituztela jantziok, eta horiek ahalik eta eroso senti daitezen nahi genuen, gorpuzkera guztientzat izatea. Ez zen erraza izan, bilera oso bat horretaz hitz egiten pasatu genuen; baina zehaztu genuen, azkenean, eta denen gustukoa izango delakoan gaude».

Danborrek ukitu berdea izango dutela aurreratu dute,

danbor-joleen gerrikoaren tonu bera. Jantzi osoak eta danborrak Azpeitian bertan egindakoak dira: «'Zero kilometro' direla esan dezakegu; are gehiago, zuzendariaren ezpata bi taldekidek egin baitute».

Rajado izango da taldearen zuzendaria estreinakoan. Hasieran postu horretara aurkezteko asmorik ez bazuen ere, azkenean pausoa eman zuen. Izan ere, taldekideen artean zuzendari izateko inor prest ez zegoela ikusirik, zozketa egitea erabaki zuten. «Eta orduan pentsatu nuen nire burua aurkeztea, ilusioa pizten zidan zerbait zen eta. Orduan beste inork ez du esan zuzendari izatea nahiko lukeenik, baina agertuko balitz, ez zen

arazorik egongo zozketa egiteko edo beste erabakiren bat hartzeko», dio.

Egunerako prest

Lan eta intentsitate askoko urtea izan da beraiantzat, baina Perdillegi elkarteak prest daude urtarrilaren 19rako. 2024aren amaieran osatu zituzten jantziaren xehetasunak: txintxarriak eta txalekoak banatzea. Beraz, afaria eta danborradako jantzia bakarrik falta zaizkie. Elkartearen bertan afalduko dute, eta catering zerbitzua izango dute: «Denboraz ondo ibili nahi dugu, eta garaiz iritsi danborradaren hasierako ordura. Berriak gara, eta badaezpada...».

Lehenbiziko urtea, eta festa borobila izango dutela azaldu



du Rajadok, banderaren jai-tsieran ere parte hartuko baitute. «Egokitu egin zaigu, eta horrekin ere gustura gaude. Zerbait afaltzeko hartuko dugu nonbaitetik, eta elkartean bertan afalduta aterako gara jai-tsierako danborradan».

Danborrak egokitu zaizkie, eta horrek poztasuna areagotu die Perdillegikoei. «Bagenekien izena ematen zuen hurrengo taldeari danborra egokituko zitzaioala, eta horregatik ibili ginen presaka eta korrika. Izena emateko epea ireki orduko udaletxean ginen, aurrez beste talderik ez zela azaldu ziurtatuz», gogoratu du Iriartek.

Talde gaztea osatu dute, «oso gaztea», baina ondo moldatuko direlakoan dau-

de. «Kide asko bazkideen seme-alabak dira, belaunaldi berrietako gazteak», dio Agirrek. Horregatik, beren kabuz entsegu bat edo beste egitea proposatu du zuzendariak, talde guztiek batera egiten dituzten entseguetara ahalik eta ondoen iristeko. Rajado bera urtean zehar etxean

Elkartean bertan afalduko dute, eta catering zerbitzua izango dute

Bi urte daramatzate gaiarekin lanean, eta igandea noiz iritsiko zain daude

aritu da abestiak bereganatu nahian: «Azken hilabeteetan, batik bat, gogotik ibili naiz. Danborradan iriteten nintzen Sanjuandegi taldearekin, eta, beraz, abestiak ezagutzen nituen. Baina taldea zuzentzea beste kontu bat da eta eguna iristean ondo egitea nahi dut. Gainera, txapa jo izan dut beti, eta orain, danborra zuzendu beharko dut. Lehenbiziko urtea dugu, eta ondo porta daitezten eskatu diet».

Gogotsu daude Perdillegikoak. Bi urte daramatzate danborradaren gaiarekin lanean, eta igandea noiz iritsiko zain daude. «Gazteak ere ilusioz daude. Hainbeste lan egin eta hainbeste itxaron ondoren, iristear da hain gogoko dugun uea», amaitu dute.

MENDIZABAL
AZPEITIKO ERRETEGIA

ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK

Landeta Hiribidea, 16 - AZPEITIA - 943 81 20 01

CENTERPOINT
ENGLISH ACADEMY

ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!

943-81 65 03 - www.centerpoint.eus

LAU BIDE
JATETXEA

ondo pasau
sansebastianak!

Landeta Hiribidea, 2 • Azpeitia • T. 943-81 68 78
www.laubidejartetxea.com

OB
ERITZA BASTARRIKO ANHILBULARITZA

Ondo pasau sansebastianak!

Ibivotaren plaza 7 • 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
943-15 05 09 • ob@anillularitza.eus

DTM

Marka guztien konponketa eta mantentze lanak egiten ditugu, bereziki, BMW eta auto alemaniarretan

Formakuntza jarraian, eta erremintarik aurreratuenekin

Ondo pasau sansebastianak!

Urola kalea, 6 • AZPEITIA
943-15 12 60 • 604 24 55 83
dtm@dtmloigar.com

Orain **GUKA** klik bakarrean

ZER ESKAINTZEN DU GUKA APLIKAZIOAK?

ALBISTEAK



AGENDA



ATERPE



GUKAKIDE
TXOKOA



DESKARGATU



Eskuragai
IOS



Eskuragai
ANDROID



GUKApp

ikastola ZU?

Ondo pasatu sansebastianak!

2025-2026 ikasturtea

Matrikulazio epea: otsailaren 3tik 14ra

azpeitiko
ikastola

ikasberri koop.e.



943-15 12 46
www.azpeitikoikastola.eus

Ate irekietan izena emateko:






HOTEL LOIOLA

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Loiolako Inazio hiribidea, 47 • Azpeitia • 943-15 16 16
loiola@hotelloiola.com • www.hotelloiola.com



MIMA
ETXKO OSAGARRIAK

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Loiolako Inazio Hiribidea 21. behea
943-81 69 76 • 645 00 50 65 • mima.denda@gmail.com
www.mima.eus • @mimagenda



Tien21 ESNAOLA

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Benda
Pablo M. I. • Tel. 943-08 03 55
esnaelek@outlook.com

Lantegia
Orendaundi, 6 (Landeta)
Tel. 943-15 09 02 • esnaelatelecom@telefonica.net

movi)tek
Zerbitzu Teknikoa

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Jose Artetxe, 8 behean | Azpeitia | 943-81 22 31
www.moviltek.net



PK
Pastorkua

Ondo pasau sansebastianak!

Jose Artetxe Kalea 13 - AZPEITIA • 943-81 18 57 • pastorkua@hotmail.com



Iritzia

Goiatz Etxaniz

Aurtengoa berezia izango da

Aurtengoa ez da danborradan aterako naizen lehendabiziko aldia. Izan ere, iaz Itsasi taldearekin irten nintzen. Aurtengoa, ordea, berezia izango da, ikastetxeko kideekin aurrenekoz irtengo bainaiz San Sebastian eguneko danborradan, Iraurgi ikastetxeko ezpatadunen taldean.

Hori gutxi ez, eta, gainera, San Sebastian bezperako helduen danborradan Izarraitz Txoko taldean zuzendari txiki izatea egokitu zait, txistulariz jantzita. Oso pozik nago. Orain arte, urtero irten izan naiz kalera aitona-amonekin batera helduen danborrada ikustera,

gurasoek danborra nola jotzen zuten ikustera bereziki; eta aurtan neu irtengo naiz berarekin, eta taldea zuzentzen, gainera. Egia esan, ez daukat nekearen beldurrik, oso lasai nago.

Danborradako doinuak asko gustatzen zaizkit, baita horiek azpeitiarrengan sortzen duten zirrara ere.



«Egia esan, ez daukat nekearen beldurrik, oso lasai nago»



Gipuzkoako Tertzioak taldea, iazko danborradan.

Haur danbor jotzaile txikiak, plazara

San Sebastian egunez Ardozaleak eta Gure Ametsa elkarteek kalejira egingo dute. Prozesioaren, elizkizunaren eta sokamuturraren ondoren, haurren danborrada hasiko da, 12:30ean.

San Sebastian bezperaren ondoren, egun handia iritsiko da. Astelehenan goiz esnatuko da Azpeitiko herria, 09:00etan, Izarraitz txistulari taldeko eta Juan Antxieta musika eskolako kideen goiz eresiarekin. Danbor hotsak ere berriro izango dira entzungai goizean goiz Alde Zaharreko kaleetan. Izan

ere, urteroko ohiturari jarraituz, Gure Ametsa eta Ardozaleak elkarteek, Udal Musika Bandarekin eta musika eskolako txilibiteroekin batera, kalejira egingo dute.

Jarraian, udal ordezkariekin batera, Elizkaletik barrena So-reasuko Sebastian Donearen parrokiara joango dira. Gero, San Sebastianen irudiarekin parrokiatik irten eta Alde

Zaharreko kaleetan prozesioa egingo dute. 10:45ean hasiko da aurtan ere meza nagusia parrokiaren barruan, eta hura bukatu ondoren hasiko da elizkizuna. Julian Barretxea abesbatzak eta Azketa ahots taldeak parte hartuko dute mezan. Eguerdian, berriz,



Iritzia
Aetz Imaz

Aurten, hirugarrenez

Aurten hirugarren aldiz irtengo naiz danborradan. Due-la bi urte Itsasi kultur taldearekin atera nintzen, eta iaz Ikasberri ikastolarekin, Enparan edo Gipuzkoako Tertzioen jantziarekin. Aurten, beraz, hirugarren urtea izango dut eta Itsasirekin aterako naiz berriro, soldadu frantziarren jantzia errepikatuz.

Danborrada asko gustatzen zait, baina ezingo nuke arrazoi edo zergati bakar bat erabaki. Izan ere, herrian sortzen den giroa, danborraren soinua, danborra jotzea, lagunekin egotea... dira danborradan parte hartzerakoan gehien gustatzen zaizkidan gauzak. Badakit zertxobait urduri ja-

rriko naizela eguna iristean, baina gehiegi ere ez dadila izan... Gainera, hirugarren urtea dudanez, lasaiago egongo naizela uste dut.

Aurten, berriro, danborradaz eta San Sebastian egunaren inguruko guztiaz gozatzea espero dut, eta, batik bat, eguraldi ona egitea. Horrek asko laguntzen du. Ea dena ondo irteten den!



«**Badakit zertxobait urduri jarriko naizela San Sebastian eguna iristean**»

sokamuturra izango da plazan, ordu erdiz.

Txikienen txanda

Umeen danborrada 12:30ean hasiko da, Olazko Andre Mariaren Plazatik. Honako hurrenkeran egingo dute desfilea aurten umeen taldeek: Iraurgiko Zumalakarregi taldea, Ikasberriko soldaduak, Iraurgiko mikeleteak, Karmelo Etxegaraiko napoleoi urdinak, Juan Antxieta musika eskola, Karmelo Etxegaraiko Bizkaiko Tertzioak, Itsasi, Iraurgiko ezpatadunak, Ikasberriko sukaldariak eta Karmelo Etxegaraiko napoleoi gorriak. Guztira, hamar talde eta 500 ume inguru elkartuko dira danborradan. Talde batzuk Arana kaletik eta Butzintzuriko Errebaletik jaitziko dira Olazko Andre Mariaren Plazaraino; eta beste batzuk, aldiz, Artzubiatic igoko dira.

Ohiko legez, Aranatik abiatuko da karroza, eta hura di-seinatzeaz arduratu da berriro

aurten Aitor Exposito. Aurtengo karrozak Azpeitiko antzinako lanbideak ditu gaitzat, eta diseinua herritarrek lehenbizikoz ikusteko aukera izango dute San Sebastian egunean bertan. Karrozaren atzetik, berriz, inudez, mikelletez eta abarrez jantzita des-

Guztira, hamar talde eta 500 ume inguru elkartuko dira danborradan

Aurtengo karrozak Azpeitiko antzinako lanbideak ditu gaitzat

filean irten nahi duten herritarrek joango dira. Alde Zaharreko kaleak igaro ondoren, danborrada plazara iritsiko da, eta han errepertorioko

abesti guztiak jotzen dituztenean amaituko da hurren danbor festa.

Festaren amaiera

Urtarrilaren 20ko gauean amaituko da 24 orduko festa, banderaren jaitzierarekin. Urtero bezala, 23:15ean hasiko da bandera jaitzierako danborrada. Bustinzuriko Errebaletik abiatuko dira jaitzieran parte hartuko duten honako sei taldeak: Zezenza-leak, Barrenetxea abesbatza, Ilunpe, Inpernue, Izarraitzepe eta Perdillegi talde berria.

Alde Zaharreko kaleak igaro ondoren, gauerdian plazan elkartuko dira talde denak eta, Azpeitiko Musika Bandarekin batera, zuzenean joko dituzte sansebastianetako piezak. Kanpaiek hama-biak jo orduko, jaitziko dute herriko bandera udaletzeko balkoi nagusian. Hala, datorren urtera arte isilduko dira Azpeitian sansebastianetako doinuak.

ETXE-AIZ
Etxegintza, s.l.

Julian Elorza Hiribidea, 3 behea
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
943-15 76 99
627 44 19 00
etxeaz@hotmail.com

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

ondo pasau sansebastianak!

GU

Urbitearte, 4
AZPEITIA
943-81 03 08

ELIZ K/ 38, AZPEITIA
TEL./WAPP.: +34 955 74 81 46
NINAIZYOGA@GMAIL.COM
WWW.NINAIZYOGA.COM

ninaiz
your partner

Arimaren, buruaren eta gorputzaren arteko oreka

GOZATU SANSEBASTIANEZ!

Urraki
ELEKTROMEKANIKA

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Atxublaña, 3 - AZPEITIA - 943-14 23 54
urraki@urraki.eus - www.urraki.eus

URBISTONDO MARGOAK

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

EMAN KOLOREA SANSEBASTIANEI!

Salbe Auzunea 35 behea
20730 AZPEITIA • 943-81 57 81
info@urbistondomargoak.com

Mendata
ESTUDIO GRAFIKOA



WEB DISEINUAK
WEB MANTENUA
KARTELAK
FLYERRAK
LOGOAK
SARE SOZIALAK
MENUAK
GONBIDAPENAK
INPRIMAKETAK
ESKANEOK

Urbizarro, 8 - beheña | T. 943 38 84 81 | mendataestudio@gmail.com

Haurren danborrada

Guztira, hamar talde eta 500 ume baino gehiago izango dira San Sebastian eguneko danborradan. Kolorez eta umorez beteko dituzte Azpeitiko kaleak, eta talde horien jantzien inguruko informazioa, sorrera urtea eta jotzen duten danbor mota dituzu jarraian.

EGURTZA
INMOBILIARIA

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

info@egurtza.com
www.egurtza.com • 943-82 90 74 • Erdi Kalea, 21 • AZPEITIA

JOXE RAMON
• harategia •

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!



Loiolabide 23 • Azpeitia • 943-8105 59 • 636 92 86 49

GOI ATZ
ILEAPAINDEGIA

Salbe auzuena. 36
20730 azpeitia
943-81 04 08

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

INTXAUSTI

Salbe 33 • AZPEITIA • 943-81 04 89

Ondo pasau sansebastianak!




IRAURGI IKASTETXEKO ZUMALAKARREGI TALDEA

Sorrera: 1986. urtea.
Txapa.



IKASBERRI IKASTOLAKO GIPUZKOAKO TERTZIOAK

Sorrera: 1996. urtea.
Danborra.



IRAURGI IKASTETXEKO MIKELETEAK

Sorrera: 1986. urtea.
Txapa.



KARMELO ETXEGARAI IKASTOLAKO NAPOLEOI URDINAK

Sorrera: 1986. urtea.
Danborra.



**JUAN ANTXIETA MUSIKA
ESKOLA**

Sorrera: **2004. urtea.**
Txapa.



**KARMELO ETXEGARAI
IKASTOLAKO
BIZKAITARREN
TERTZIOAK**

Sorrera: **1986. urtea.**
Danborra.



ITSASI KULTUR TALDEA

Sorrera: **1984. urtea.**
Danborra eta txapa.



**IRAURGI IKASTETXEKO
EZPATADUNAK**

Sorrera: **1986. urtea.**
Danborra.



**IKASBERRI IKASTOLAKO
SUKALDARIAK**

Sorrera: **1996. urtea.**
Txapa.



**KARMELO ETXEGARAI
IKASTOLAKO NAPOLEOI
GORRIAK**

Sorrera: **1986. urtea.**
Danborra.

REFORMAS EUGENIO

OFERTA

672 60 06 06 Eugenio
www.reformaseugenio.com

Ondo pasau sansebastianak!

Ondo pasau
Sansebastianak!

Tindategia
Sagarna

- Berezitasuna lehorreko garbiketan
- Nordikoak, mantak, edredoiak eta qortinen garbiketa berezia

Idelonso Gurrutxaga, 3 • tel.: 943-02 66 81

LANDETA

Burdinlanak eta egitura metalikoak

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!

Anardi Area 9 Lasao auzoa 943 81 54 97
www.landetaburdinlanak.eus

COVIRAN

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

Salbe auzoa, 22 | Etxe Alai Kalea, 3
Azpeitia


JATETXEA
LANDETA
SAGARDOTEGIA

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**

Tel.: 943 81 09 59 • Landeta Auzoa, 12 • 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)



IRTEERA




HERRIKO PLAZA



Danbor taldeen irteera hurrenkera:

- 1.- Iraurgi Ikastetxeko Zumalakarregi taldea.
- 2.- Ikasberri Ikastolako Gipuzkoako tertzioen taldea.
- 3.- Iraurgi Ikastetxeko mikeleteak.
- 4.- Karmelo Etxegarai Ikastolako napoleoi urdinak.
- 5.- Juan Antxieta musika eskolako taldea.
- 6.- Karmelo Etxegarai Ikastolako Gipuzkoako tertzioen taldea.
- 7.- Itsasi taldea.
- 8.- Iraurgi Ikastetxeko ezpatadunak.
- 9.- Ikasberri Ikastolako sukaldariak.
- 10.- Karmelo Etxegarai Ikastolako napoleoi gorriak.



GURE ATERPEAN, ETORKIZUNA EREITEN



BETE SOINUZ ETA KOLOREZ KALEAK!

HERRIA ASKATASUNA KONPROMISOA ZAINZA ERALDAKETA KONFIANTZA

ATE IREKIAK

Urtarrilaren 24an 16:30ean

www.iraurgi.eus • Tel.: 943-81 02 10



eta ezagutu abantailak

Bi bazkidetza mota aukeran:



papera

aldizkaria **60€** urtean

egunkaria **95€** urtean



digitala

52€ urtean

Abantailak:

- Papereko argitalpenak etxean, Gukakide digitalak izan ezik.
- Argitalpenak digitalki eskuragarri.
- Guka aplikazioan bazkideentzako txokoa.
- Argazkiak eta bideoak deskargatzeko aukera.
- Zozketak eta lehiaketak.
- Ekitaldiak.
- Deskontu sarea.

Zure ekarpenari esker,
herriko albisteen berri
ematen jarraituko dugu!



Bidali bazkidearen **izen-abizenak eta telefonoa:**

✉ **bazkide@ukt.eus** posta elektronikora

📞 Bezero arretara **whatsapp mezua** (607 49 87 25)



**Zenbat dakizu
sansebastianei
buruz?**

Parte hartu
galdera-erantzunen
jolasean eta irabazi
**arrainez eta itsaskiz
osaturiko otarrea**



**KONTXI
ARRAINDEGIA**




GUKAkide

DENBORA-PASAK

MARGOTU



LABIRINTOA



DOMINOA





Sebastian bat bada... Jakanean

Jaka janari dendan erakusleiko txiki bat daukate, eta sasoian-sasoian, haren itxura aldatu egin ohi da. Egunotan, San Sebastian festei begira dago hango erakusleiko jostaria.

Jaka janari dendara ere iritsi dira sansebastianak. Danborrak han-hemenka, kolore txuri-urdinak, banderak, aspaldiko argazkiak... Saltokian erakusleiko txiki bat daukate, eta sasoian-sasoian haren itxura aldatu egin ohi da, urteko egutegiaren isla bilakatu. Urtea hasi berri den honetan, San Sebastian festei begira dago herria, baita Jakaneko erakusleiko jostaria ere.

Lurdes Arzallus eta Olatz Larrañaga dira saltokiaren arduradunak, baina Arzallusen kontuak dira erakusleikoari lotutakoak. Hura hasi zen aspaldi erakusleikoari askotariko dekorazioak jartzen, eta halaxe, asko pentsatu gabe hasitako ideiarekin jarraitu du gaur arte. Eta oraingoan ere ez du hutsik egin: buruari hainbat buelta eman ostean, bati eta besteari eskatu dizkio dekoraziorako elementuak, eta halaxe, eskuineko argazkian ikus daitekeen itxura hartu du dendako erakusleikoak.

1988ko abuztuaren leian hartu zuten saltokia Arzallusek eta Larrañagak, eta beraz, ia 37 urte daramatzate han lanean. Ordutik dator apainketaren kontua, Arzallusek gogoratu duenez. «Gure aita bizi zela, hark lagunduta egiten nituen erakusleikoak. Berak egiten zizkidan apalak, armairuak, aulkiak...».

Gaur egun, herritarrekin elkarlanean osatzen du erakusleioa, bezeroei, eta batez ere haurrei, jolasaren parte izatea gustatzen zaielako. Horri esker, herritarrekin «harreman polita» sortu dutela dio Arzallusek, eta berak horri ematen dio balioa. «Saltsa pixka bat jartzen dio kontu honek dendako eguneroko bizimoduari».



San Sebastian jaiei eskainitako erakusleioa, Jaka janari dendan.

zaher
GROUP

**ONDO PASAU
SANSEBASTIANAK!**



Pol. Ind. Ugarte Pab. 72-73
20720 Azkoitia (GIPUZKOA)
Telf: 943-85 71 20
www.zaher2000.com



**ALTUNA
Y URIA**



L Loiola

ONDO PASAU SANSEBASTIANAK!



Eskerrik asko, Pedro

Abenduaren 25eko goizaldean zendu zen Pedro Illarramendi, 86 urterekin, danbor hotsak gertu zirela. Urte luzez festaren ikur nagusienetakoa izan ondoren, igandeko danborrada Illarramendi gabeko lehendabizikoa izango da.

Azpeitiko danborradaren sortzaileetako bat izan zen Illarramendi, eta urte askoan parte hartu zuen bertan. 1959ko helduen lehen danborradan, Oargi taldearen zuzendari atera zen, eta ordutik 50 urtez irten zuen zuzendari; aurreneko urteetan Oargi eta Landeta-Egizale taldeekin, eta gero, 1967tik 2010era bitartean, Alkartasuna taldearekin. Azken urteetan, berriz, danborra jotzen atera zen Alkartasunarekin.

Illarramendik berak *Azpeitiko jaiak* liburuan zera idatzi zuen: «1959ko lehen danborrada hartan Oargik eta Peña Taurina El Andaluzek hartu genuen parte, Oñatzbide elkartekoak gastadore lanetan zirela. Prestatzeko denbora askorik ez genuen izan, erabakia nahiko berandu hartu genuelako, eta baliabide eta diru aldetik ere ez genbiltzan soberan. Lehen aldi hartan, banderarik gabe ginen, napoleoi jantziekin, eta Peña Taurinakoak sukaldariz jantzita atera ziren».

Aurten, 66 urte geroago, Azpeitiko festa parte hartzaileenak bihurtu dira sansebastianak; 31 talde, 1.600 pertsona, giro ona, emozioa... Hori guztia hasierako urte haietan lana egin zutenei zor zaie.

Eskerrik asko, Pedro!



Familiaren etxean

San Sebastian jaiek Illarramendiren eta haren inguruan izandako pisua ondo baino hobeto ezagutzen dute haren familiarako kideek. Hona hemen, Illarramendiren alaben hitzetan, zer ziren eta diren, sansebastianak Illarramendi-Zubimendiren etxean:

«Udazkeneko azken hostoak erori aurretik hasi ohi ginen sansebastianetako musikaz blaitzen gure etxean. Gure aitaren etxeko txokorik kuttunean hasten ziren entseguak, eta familia osoa jartzen gintuen bere konpasa jarraitzen. Gure ama, berriz, adi-adi soinean eman beharreko guztia ondo josita zegoela ziurtatzen. Jostun bikaina da gure ama, eta, bereziki, oihal zein arropetatik haratago: beti laguntzen, guztiok batzen, guztiok zaintzen. Halaxe irtetzen zen aita elegante-elegante, atzetik lan ikaragarria zegoen.

Sansebastianen presentzia oso berezia izan da gure familiaran, eta festa hauekiko maitasuna alabei zein bilobei iritsi zaigu. Gogoan dugu txikiak

ginela aita desfilatzen ikusteak gure sortzen zuen emozioa, zoriona eta harrotasuna. Izan ere, aita egun hori prestatzeko eskaintzen zuen mimo guztiaren lekuko izaten ginen urtero-urtero.

Gizon alai eta irribarretsua izan bada ere, bazen barre hori ezkututzen zuen momenturik: gaueko hamabietan, Azpeitiko plazan, *San Sebastian martxa* jo aurreko unea. Benetan serio jartzen zen, bere hitzetan, danborradako momenturik hunkigarriena eta garrantzitsuena baitzen. Emozio hori, nahitaez, familia osoak ere sentitzen jarraitzen dugu.

Gure aita benetan harro zegoen herriak lortutakoaz: bi

talderekin hasi, eta gaur egun hartu duen leku eta presentziaraino egindako ibilbideaz. Benetan pozten zuen hainbeste talde desfilatzen ikusteak; eta, era berean, Azpeitiak lortutakoa Euskal Herrian zehar telebistaz zabaltzeak. Lan askoren fruituak izan dira berarentzat.

Bere familia, berriz, oso harro gaude hasieratik gure aitak egin duen lan guztiaz:



Txikiak ginela aita desfilatzen ikusteak emozioa sortzen zigun

Emozio hori, nahitaez, familia osoak ere sentitzen jarraitzen dugu

urte zailenei heldu baitio, eta gaur egungo festa garrantzitsu hauen sortzailea eta bultzatzailea izan da guretzat. Inurriak bezala lanean, lehen zein bigarren lerroan: beti bihotza eskuan. San Sebastian festak eta danborrada zaindu ditu lurrean, eta halaxe egiten jarraituko du dagoen lekuan».







**Herrietatik sortutako
komunikazio taldea gara,
gure komunitateaz
jarduten dugu,
gure begiekin, gure erara,
gure hizkuntzatik:**

**GUKA
gara**

*Ondo pasau
sansebastianak!*

bertan
azpeitiko merkatarielkartea

AZPEITITIK IRTENDA TALDEKO BIDAIAK 2025



Halcon BIDAIAK

688821256

halconv75@halconviajes.com



46

Sansebastianak

Astelehena, 2025eko urtarrilaren 13a GUKA

AGENDA

Urtarrilak 14, asteartea

16:00. Umeen danborradarako entsegua, Izarraitz pilotalekuan.

21:00. Helduen danborradarako entsegua, Izarraitz pilotalekuan.

Urtarrilak 15, asteazkena

16:00. Umeen danborradarako entsegua, Izarraitz pilotalekuan.

21:00. Helduen danborradarako entsegua, Izarraitz pilotalekuan.

Urtarrilak 16, osteguna

16:00. Umeen danborradarako entsegua, Izarraitz pilotalekuan.

21:00. Helduen danborradarako entsegua, Izarraitz pilotalekuan.

Urtarrilak 17, ostirala

22:00. The Cure Sans taldearen kontzertua, Sanagustin kulturgunean.

Urtarrilak 19, igandea

San Sebastian bezpera

22:00. Helduen danborrada, Olazko Andre Mariaren Plazatik irtenda. Aurten, Mendizaleak taldearen 50. urteurrena ospatuko du danborradak.

00:00. Talde guztiak plazan elkartuko dira, bandera igotzeko eta danborradako piezak jotzeko.

Urtarrilak 20, astelehena

San Sebastian eguna

09:00. Goiz eresia herriko kaleetan, Izarraitz txistulari taldearekin eta Juan Antxieta musika eskolakoekin.

09:30. Ardozaleak eta Gure Ametsa danborradako taldeen, Udal Musika Bandaren eta musika eskolako txilibiteroen kalejira.

10:15. Udal ordezkariak So-reasuko Sebastian Donearen parrokiara joango dira.

10:30. Prozesioa, herriko kaleetan.

10:45. Meza nagusia, So-reasuko Sebastian Donearen parrokiarian. Parrokiako eta Julian



Barrenetxea abesbatzek eta Azketa ahots taldeak parte hartuko dute goizeko elizkizunean.

12:00. Sokamuturra, plazan.

12:30. Haurren danborrada, Arana kaletik eta Artzubia hiri-bidetik irtenda. Kalez kale ibiliko dira hamar taldeak, eta plazan amaituko dute ekitaldia. Aitor Expositok Azpeitiko antzinako lanbideak gai hartuta egindako karroza ere aterako dute.

16:30. Sokamuturra, Erdikalean hasita. 20:00etara bitartean ohiko ibilbidea egingo du sokamuturrak. Ganadutegia: Lopene.

17:30. Diskopuntx jaialdia, Azoka Plazan.

23:15. Bandera jaitsierako danborradaren hasiera. Bustinzuriko Errebaletik abiatuko dira parte hartuko duten taldeak

(Zezenzaleak, Julian Barrenetxea abesbatza, Ilunpe, Inpernue, Izarraitzpe eta Perdillegi), eta Alde Zaharrean kalejira eginda, plazan bukatuko dute ibilbidea.

00:00. Banderaren jaitsiera plazan. Udal Musika Bandak joko ditu danborradako piezak, zuzenean.

Urtarrilak 26, igandea

16:30. Sokamuturra, Erdikalean hasita. 20:00etara bitartean ohiko ibilbidea egingo du sokamuturrak. Bergarako Zezenak ganadutegiko zezenak izango dira.

16:30. Familia osoarentzat Alan giza antena, So-reasu antzokian.

19:30. Zinema: Crossing, So-reasu antzokian.



Iritzia

Nagore Alkorta

Zergatik gustatzen zaizkit hainbeste festa hauek?

Behin baino gehiagotan esan izan dut, baina berriz ere esango dut: sansebastianak dira nire festa gustukoena. Zergatik? Neuk ere ez dakit. Ez da urtero-urtero danborradan hutsik egin gabe ateratzen den horietakoa izan naizelako. Bizpahiru aldiz bakarrik aterako nintzen helduenean. Ez da danborradaren aitzakian urtero plan bereziren bat izaten dudalako ere; izan ere, behin baino gehiagotan tokatu izan zait San Sebastian bezperan tabernan lan egin behar izatea, edo kanpoan bizi izan naizen urteetan, herrira etortzeko aukerarik ere ez izatea. Umeen danborradari buruz, berriz, dudan oroitzapen bakarretakoa da banderarekin atera nahi nuela, baina zozketan ez nuela zorterik izan.

Hala ere, eta kontuak kontu, izugarri gustatzen zaizkit sansebastianak. Danborrada hastera doala iragartzen duen txistuarekin eta lehen doinuekin bihotza azkartzen zait. Gauerdian, *San Sebastian martxa*-rekin, oilo ipurdia jar-

tzen zait, eta malkoren batek edo bestek ere ihes egiten dit (badakit ez naizela hori gertatzen zaion bakarria).

Lehen esan bezala, ez dakit oso ondo zergatik gustatzen zaizkidan hainbeste festa hauek, baina San Sebastian bezperak argazki benetan ederrak uzten ditu: beste ekitaldi gehienek ez bezala, talde berean adin desberdinetako jendea elkartzea lortzen du danborradak; elkar apenas ezagutzen duen jendeak elkarrekin afaltzen du egun horretan; edo herritik kanpo bizi diren askorentzat danborrada

Talde berean adin desberdinetako jendea elkartzen du danborradak

Urtero nahiko antzekoa, baina, aldi berean, urtero berezia izaten da


aitzakia nahikoa izaten da astegun buruzurian ere jai hartu eta Azpeitira itzultzeko.

Urtero nahiko antzekoa, baina, aldi berean, urtero berezia izaten da danborrada: abestiaren bat estreinatuko delako, talderen batek jantziak aldatu dituelako... Iaz, adibidez, niretzat ezusteko oso polita izan zen Arrantzaleen taldean gizonak ateratzea kantinera eta banderarekin. Aurtengoa ere ezberdina izango da, besteak beste, talde berri bat izango dugulako: Perdillegi elkarte. Ongi etorri!

Erraz esaten da, baina 1.500 lagun baino gehiago aterako dira helduen danborradan eta 500 haur baino gehiago umeean. Lerro hauen bidez, eskerak eman nahi dizkizuet festa hauek egin ahal izateko lanean aritu zareten danborrada batzordeko kideei eta besteok gozatzeko lan egitea tokatuko zaizuen guztioi. Amaitzeko, gogoratu: *danona da festie, danona da ardurie*.

Gora sansebastianak eta aupa Azpeitia!

SANSEBASTIANAK 2025



JARRAIPEN BEREZIA GUKA

Guka telebistan saio berezia
Igandean, San Sebastian bezperan
Erreportajeak eta danborrada zuzenean, 21:30ean hasita
Guka telebistan eta azpeitiaguka.eus atarian



ETXE  ZYRI
T A B E R N A

Perez Arregi Plaza - Azpeitia
943-02 68 56

Ondo pasau sansebastianak!